

## Non zaude?

- Bai?
- Kaixo. Boise?
- Bai, nor da?
- Xabi naiz. Non zaude?
- A, kaixo, Xabi! Bada, hemen nago, e... Ibai ondoan nago.
- Non, erdigunean?
- E... ez. Ez nago erdigunean : Loiola auzoan nago.
- Loiolan? Kasualitatea! Ni Loiolan bizi naiz. Etxea ikusi nahi duzu?
- Bai, noski!
- Loiolan... Non zaude?
- Mmm... Atari Eder plazan nago!
- Oso ondo. Non dago ibaia, zure ezkerrean ala eskuinean?
- Ezkerrean .
- Oso ondo. Bada, joan eskuinera eta zeharkatu parkea.
- Listo! Eta orain?
- Orain, segi zuzen.
- Hemen ez dago biderik. Etxe bat dago.
- Bueeeeno, barkaaatu, joan ezkerreara pixxxxka bat.
- Ados!
- Orain, hartu eskuinera eta jaitsi eskailerak.
- Hartu eskuinera eta jaitsi eskailerak. Hartu eskuinera eta jaitsi eskailerak. Hartu eskuinera eta jaitsi eskailerak. Eta, orain, jaitsi eskailerak. Listo!
- Gurutzatu errepidea. Izkinan El kubano taberna dago, ezta?
- Bai, hemen dago. Eta tabernaren ondoan supermerkatu bat dago.
- Bai, hori da. Bada, orain, segi zuzen eta arku bat ikusiko duzu.
- Ados! (...) A bai, hemen dago arkua, eta kale labur bat!
- Ados, bada, joan eskuinera.
- O! Zer kale laburra!
- Beeeste eskuinera.
- A...!
- Hor, Etxea dago.
- A, bai, Etxea! Oso ondo! Agur!
- Eta bertara hurbiltz...
- Hori ezkerrean dago, eta, eskuinean, *Etxea* dago.
- A, bai, Etxea! Oso ondo! Agur!
- Eta bertara hurbiltz...
- Bai?
- Boise, non zaude?
- Etxean, atean. Eta zu?
- Zer koloretakoa da atea?

–Grisa!

–E, Boise... Hori *Etxea* altzari-denda da

–Zer? Ai ama!

–Nire etxea eskuinean dago. Atea marroia da, 12, 2A.

–Marroia... Bai marroia!